# Aleen datuak sartzeko eskuliburua

## 2016ko urria

c/ Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
– tel. 945 01 94 70 – Fax 945 01 95 34 –
e-mail: liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus

# AURKIBIDEA

AURKIBIDEA 2
ESKULIBURUAREN XEDEA 4
ALEEN DATUAK SARTZEKO LAN-PROZEDURA 4
ALEA 5
Liburutegia 5
Sukurtsala 5
Kokaguneak 5
Ale mota 6
Egoera 6
Alearen 1go kodea 6
Euskarria 7
Jatorria 7
Alearen egoera 8
Kode alternatiboa 8
Barra-kodea 8
Erregistro data 8
Erregistro zenbakia 8
Signatura 8
Signatura osagarria 9
Liburukiaren identifikatzailea 9
Balioa 9
Inbentario-data 9
Egoeraren aldaketa 9
Funtsaren kodea 9
Testua 10
Zirkulazio mezua 11
MARC OHARRAK 12
Beste datu batzuk 12
BESTE BATZUK 12
Mailegu kopurua 12
Itzulketa data 12
Azken irakurlea 12
Izenburu zenbakia 13
ALEEN PANTAILAKO BESTE AUKERA BATZUK 14
Zerrendatu 14
Bistaratzea aldatu 14
Aldatu 15
Ezabatu 15
TITULUAK BESTEGANATU ETA ESLEITU 16
Esleitu 16
Besteganatu 19
Ale bati bigarren mailako izenburua esleitu 23
ALEEN INPRIMAKIAK 29

Etiketak ateratzea 29
Inprimatzeari buruzko xehetasunak 29
Txaplatak inprimatzea 31
Barra-kodeak inprimatzea 34
Inprimatzeke dauden aleen barra-kodeak eta txaplatak 36
Katalogoak, fitxak eta dokumentuak inprimatzea 40
Katalogoak 40
Dokumentuak 45
Zerrendak inprimatzea 47
ERANSKINAK 48
1 Eranskina, Kokapenak 48
2 Eranskina, Ale motak 52
3 Eranskina, Alearen 1go kodeak 55
4 Eranskina, Euskarriak 58
5 Eranskina, Jatorriak 60
6 Eranskina, Alearen egoerak 61

# ESKULIBURUAREN XEDEA

Eskuliburu honen xedea da Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko (EIPS) liburutegiek aleen datuak sartzeko orduan jarraitu beharreko prozedura deskribatzea.

# ALEEN DATUAK SARTZEKO LAN-PROZEDURA

(Aldizkako argitalpenak salbu)

***"Sarean dauden dokumentu guztietan"*** bilatu eta behin dokumentua katalogatuta dagoela egiaztatu ondoren, liburutegi bakoitzak dagokion alearen datuak sartzeari ekingo dio.

Behin alearen datuak gehitzea nahi dugun dokumentua ikusita gero, *Gehitu* ✚ fitxan klik egin eta aleen pantaila agertuko zaigu eta alea deskribatzeari ekingo diogu: sukurtsala, ale-mota, kokagunea eta abar.



# ALEA

## Liburutegia

Liburutegi bakoitzaren sukurtsalak parametrizatuta egongo dira Liburutegi Zerbitzuak ezarritako irizpideen arabera. Parametrizazio lan hori sarearen administratzaileak egingo du Liburutegi Zerbitzutik, eta erabiliko diren kodeak ***"EIPSeko liburutegien datuak"*** dokumentuan ezarritakoak izango dira.

## Sukurtsala

Liburutegi bakoitzaren sukurtsalak parametrizatuta egongo dira Liburutegi Zerbitzuak ezarritako irizpideen arabera. Parametrizazio lan hori sarearen administratzaileak egingo du Liburutegi Zerbitzutik, eta erabiliko diren kodeak ***"EIPSeko liburutegien datuak"*** dokumentuan ezarritakoak izango dira.

## Kokaguneak

Kokaguneak aleak zein areto edo gordailutan kokatzen diren zehazten du. Kokaguneak bateratzeko ahalegina egin da katalogoa ere bateratzeko asmoz. Dena den, horrek ez du esan nahi liburutegi guztiek kokagune guztiak izan behar dituztenik. Existitzen direnak Zerbitzutik aurretik zehaztu direnetara egokitzea litzateke onena.

Liburutegi batzuentzako sortutako kokagune espezifikoak beraientzako bakarrik daude ikusgai.

Kokagune orokorrak "1 Eranskina, Kokaguneak" atalean bilduta daude.



# Ale mota

Kodeak ezartzean kontuan izan da, batetik, material-mota, eta, bestetik, zein erabiltzailei zuzendua dagoen. Horrela bereizi ahalko da heldu edota haurrentzako monografien artean, heldu edota haurrentzako ikus-entzunezko materialaren artean, etab. Horrek, hainbat mailegu-politika egiteko aukera ahalbidetzen du.

Halere, kontuan izan behar da MAILEGATU EZIN DAITEZKEEN dokumentuez hitz egiten ari garenean, liburutegitik ateratzen den maileguaz ari garela. Dena den, ale mota guztiak salan kontsultatu ahalko dira, MAILEGATU EZIN DAITEZKEENAK barne.

Ale posible guztiak “2 Eranskina, Ale-motak” atalean bilduta daude.




# Egoera

AbsysNET-eko 2.0 bertsioan parametro hau libre geratzen da.

# Alearen 1go kodea

AbsysNET-en ale-motari kode bat gehitu ahal zaio. Kode hori dokumentuaren hizkuntza adierazteko erabiliko da.

Hizkuntza posible guztiak “3 Eranskina, Alearen 1go kodea” atalean bilduta daude.



# Euskarria

Alearen kode hau dokumentuen euskarri mota zehazteko erabiltzen da, ikerketa estatistikoak egiteko intereseko datuak baitira.

Euskarri posible guztiak "4 Eranskina, Euskarria" atalean bilduta daude.




# Jatorria

Hemen liburutegiko fondoak liburutegiaren parte izatera nola heldu diren zehazten da.

EIPS-ek ezarritako ereduak "5 Eranskina, Jatorria" atalean bilduta daude.



## Alearen egoera

Absysen aurreko bertsiotan gertatzen zen bezala, eremu hau ezin daiteke parametrizatu eta bertako aukeren balioak lehenetsita daude.

"A-Oraindik ez erabilgarria", "P-Galdua", "X-Xahutua" edo "R-Berrikusi" egoeran dauden aleak ez dira OPAC-ean agertzen.

Eremu honetako aukera guztiak "6 Eranskina, Alearen egoera" atalean bilduta daude.

"C-Erabilgarria" egoeran ez dauden aleak gorriz agertuko dira.

## Kode alternatiboa

AbsysNET-eko 2.0 bertsioan parametro hau libre geratzen da.

## Barra-kodea

Sistemak automatikoki ematen du dagokion zenbaki-hurrenkera jarraituz.[1]

## Erregistro data

Datu hau sistemak automatikoki ematen du, liburutegi edota sukurtsalen alearen datuak sartu diren eguneko datarekin.

## Erregistro zenbakia

Erregistro zenbakia dagoen sukurtsal bakoitzarekiko independentea da. Erregistro-zenbakia erabiltzeko orduan bi aukera izango dute liburutegiek:

- Aleari dagokion erregistro-zenbakia zuzenean idaztea liburutegiaren sekuentzia jarraituz.
- Laukia 0 zenbakiarekin betetzea, sistemak automatikoki erabilitako zenbaki altuenaren hurrengo zenbakia eman dezan.

Liburutegi bakoitzak nahi duen sistema hauta dezake.

Izenburu beraren liburuki ezberdinek erregistro zenbaki berdina eramango dute.

## Signatura

Liburutegi bakoitzak beren signatura kodeak erabiltzen jarraitu behar du txaplatak edo bizkar-etiketak emateko orduan. Txaplatako signatura hutsuneak sartuz banatu beharko da lerro ezberdinetan agertzeko.

Eremu hau ikonoa erabiliz bila daiteke, baina kontuan izan behar da sare guztiko signaturetan bilatuko duela eta ez soilik liburutegi edota sukurtsalean.

[1] Sarean lanean hasten garenean, sistema 5.000.000tik gorako barra-kodeak ematen hasiko da

## Signatura osagarria

Eremu hau erabiltzen da signaturari buruzko edozein informazio gehigarri jasotzeko, esaterako, liburukiei buruzkoa. Gehienez 25 karaktere idatzi daitezke.

## Liburukiaren identifikatzailea

Eremu hau ale berdinak bereizteko erabiltzen da. Ale berdinak dira izenburu berari esleituta daudenak eta, era berean, liburuki ezberdinak izan daitezkenak edo euskarri ezberdineko aleak izan daitezkenak (adibidez, bigarren aleak).

Besterik adierazi ezean sistemak ez du uzten ale berdinak mailegatzen ezta erreserbatzen ere. Beraz, bereizteko eremu hau erabili beharko da eta horrela mailegatu ahal izango dira.

Gehienez 8 karaktere idatzi daitezke. Kontuan izan behar da informazioa laburtzerako unean.

## Balioa

Atal honetan alearen prezioa idatzi dezakegu.

- Sukurtsal bati lotuta dauden erabiltzaileek eremu honen informazioa aldatzeko, bistaratzeko edo inprimatzeko aleak bere sukurtsalekoak izan behar dira eta horretarako baimena behar dute.
- Liburutegi bati lotuta dauden erabiltzaileek eremu honen informazioa aldatzeko, bistaratzeko edo inprimatzeko aleak bere liburutegikoak izan behar dira eta horretarako baimena behar dute.
-

## Inbentario-data

Alea automatikoki eguneratuko da inbentarioa egiten den bakoitzean.

## Egoeraren aldaketa

Eremu hau automatikoki betetzen da alearen datuak sartu diren egunarekin. Alearen egoeran zerbait aldatuz gero (esaterako, erabilgarritik xahututako egoerara), eremu hau aldaketa egiten den egunaren datarekin eguneratuko da.

## Funtsaren kodea

Sistemak automatikoki ematen du, alea altan eman eta gero.

# Testua

Eremu honetan aleari buruzko edozein ohar jaso daiteke. Bertan agertzen den informazioa soilik aleen pantailan ikus daiteke.

Gehienez 128 karaktere idatzi daitezke.










Eremu hau BETI erabiliko da katalogatu den dokumentuaren edizio edo berrinprimatze berdinen[2] datuak sartu behar direnean, urte berean argitaratuta baldin badaude.

Ohar hau honela idatziko da:




Catherine Pancol-en “*Los ojos amarillos de los cocodrilos*” liburua 2010ean argitaratu edo berrargitaratu zen 15 aldiz gutxienez, ISBN zenbaki berdinarekin, argitaletxe berdinean eta bilduma berdinarekin.

Berrargitarapen edo/eta berrinprimatze guzti horietarako erregistro bakarra egingo dugu, eta “Aleak” eremuaren “Testua” laukian argitaraldiaren zenbakia jarriko dugu.




---

[2] Ohikoa da argitaletxeek edizio terminoa erabiltzea, argi eta garbi helburu komertzialekin, egiazki berrinprimaketak direnean.

Beste aukera datua "signatura osagarrian" jartzea litzateke. Era honetan, berrargitarapenen bistaratzea errazagoa da.



## Zirkulazio mezua

Aurreko eremuan bezala, hemen ere aleari buruzko edozein ohar idatz daiteke. Jasotako informazioa alea mailegatzen edota itzultzen den bakoitzean agertuko da.

# MARC OHARRAK

Behin alea grabatu ondoren eremu hau automatikoki betetzen da *Aleak* erlaitzean sartutako informazioarekin.

# Beste datu batzuk

Eremu hau aleari buruzko beste edozein informazio jasotzeko erabiliko da. Adibidez, aurreko signatura, etab.




# BESTE BATZUK




# Mailegu kopurua

Eremu haua automatikoki **0** batekin betetzen da. Ale horren mailegu kopuruarekin eguneratuz joango da.

# Itzulketa data

Alea gehitzerakoan eremu hau hutsik geratzen da. Alea mailegatu zen azken aldiaren itzulketa datarekin eguneratuko da.

# Azken irakurlea

Eremu honek alea maileguan izan duen azken irakurleari buruzko informazioa ematen du.

# Izenburu zenbakia

Eremu hau automatikoki beteko da alea gehitzen ari zaion dokumentuaren izenburuaren zenbakiarekin.




Behin datu guztiak sarturik, klik egingo dugu botoian.

# ALEEN PANTAILAKO BESTE AUKERA BATZUK

Erregistroak gehitzeaz gain, alearen eremuan beste lan batzuk egin daitezke, besteak beste, zerrendatu, bistaratzea aldatu, aldatu eta ezabatu. Ondoren bakoitza laburki azaltzen da.

## Zerrendatu

Zerrendatu ikonoan klik eginez gero, erregistroarekin zerikusia duen informazioa eskura daiteke, adibidez, alearen eta maileguaren datuak.




## Bistaratzea aldatu

Ikono honek aleen bistaratzea aldatzea ahalbidetzen du xehetasunetik zerrendara. *"Xehetasuna"* fitxan klik eginez gero eragiketa berdina egiten dugu.






# Aldatu

Ikono honen bidez  aleari buruzko datuak alda daitezke.

# Ezabatu

Ikono honen bidez  alea ezabatu daiteke.

# TITULUAK BESTEGANATU ETA ESLEITU

Gerta daiteke akats baten ondorioz ale bat berari ez dagokion izenburu bati esleitu izana edota bakarrik ale batekin lotuta dagoen izenburua aldatu nahi izatea. Kasu hauetan, "esleitu" eta "Titulua besteganatu" botoiak erabiliko ditugu.

## Esleitu

"**Esleitu**" aukerak, ale bat beste izenburu bati esleitzea ahalbidetzen du.

Ale bat altan ematerakoan berari ez dagokion izenburu bat esleitu bazaio edo ale horrekin lotuta dagoen izenburua aldatu nahi bada.




Aukera hau gure sukurtsaleko aleetarako soilik dago erabilgarri. Ezin dira beste liburutegi edota sukurtsaletako aleak esleitu.

Lehenik eta behin esleitu nahi dugun alea bilatuko dugu eta aukeratzen dugunean kolore urdin ilunagoz agertuko da.



Gero Esleitu botoian klikatzen dugu.

CATA-ko datu-basean aleari esleitu nahi diogun izenburua bilatzeko leihoa agertuko da.




Bilatu nahi dugun dokumentuaren terminoak sartzen ditugu. Bilatu Botoian klikatzen dugu eta bilatutako dokumentuen zerrenda agertuko da. Interesatzen zaigun dokumentua aukeratzen dugu eta ondoren Hartu botoiaren gainean klikatzen dugu.



Alea katalogazio zuzenean zintzilikatuko da automatikoki.




Eta hasiera baten zegoen erregistrotik desagertuko da.



# Besteganatu

Aukera honen bidez, **ale GUZTIAK** fitxa bibliografiko batetik bestera pasa daitezke, aurreneko fitxa hori CATA-ko datu-basetik desagertuz.
“Esleitu” funtzioak ez bezala, jatorrizko ale horri dagokion fitxa datu-basetik desagertzen du.

Aukera hau gure aleentzako zein Sareko ale guztientzako erabilgarri dago. Arreta handiz erabili beharko da beste liburutegietako aleak ez besteganatzeko.






botoiak bi ondorio ditu:

1. Besteganatutako erregistro bibliografikotik “zintzilikatuta” dauden ale **GUZTIAK** aukeratutako izenburura pasatzen dira.

2. Besteganatutako erregistroa katalogotik **desagertzen** eta ezin da berreskuratu.

Lehenik eta behin alea besteganatu nahi dugun erregistroa bilatzen dugu. Hori CATAko datu-basetik desagertuko da.

Ale bat beste erregistro batera besteganatzeko:

1. Besteganatu nahi dugun erregistroa bilatzen dugu (hori CATAko datu-basetik desagertuko da eta bere aleak CATAko veste erregistro batera pasatuko dira)

Adibidea:



2. 

botoia klikatuko dugu.




3. Aleak besteganatu nahi ditugun erregistroa bilatzeko pantaila agertuko da.




Erregistroa bilatzen dugu, aukeratzen dugu (urdinez markatuko da) eta “Hartu” klikatzen dugu. Erregistroa nahi duguna dela ziurtatzeko “Bistaratu” botoia klikatu dezakegu.


Lan-eremua Katalogoa CATA
Dok.-zk. Egilea Izenburua Urtea
1 Defoe, Daniel (1... Robinson Crusoe / 2012
2 Defoe, Daniel (1... Robinson Crusoe / 2012
Dokumentuak: 2/2
UPDATE
Hurrengoak
Bistaratu
Hartu
Ezeztatu

Pantaila bat agertuko da transferentzia burutu nahi dugun baieztatzeko.




Katalogazioetako bat automatikoki desagertuko da eta ale biak erregistro berdinetik zintzilik geratuko dira.



# Ale bati bigarren mailako izenburua esleitu

AbsysNET-ek bigarren mailako izenburuak ale jakin bati asoziatzea uzten du (esaterako, azaleztapen izunak, analitikoak…). Lotura hori informatiboa da soilik, ez da baliozkoa maileguak egiteko ezta estatistikentzako ere ez.

*Analitiko baten adibidea:*

Aldizkaria katalogatuko da eta alea emango zaio. Ez ahaztu barra-kodea idaztea.




Ondoren separata katalogatuko da.



Separataren erregistroan egonik, “Zabaldu menua” aukeran klik egiten dugu, “Dokumentua” aukeratu eta horren barruan “Alea esleitu (bigarren izenburua)”.




Aldizkariaren barra-kodea sartuko dugu.




Orain separatan alearen lerro berri bat agertuko da. Aldizkariaren datuak jasotzen dira eta gorri-laranja kolorekoa da.




Asoziazioa ezabatzeko desazoziatu nahi den erregistroa bilatu behar da. Nahi dugun barra-kodea aukeratzen dugu eta honako aukeretan egingo dugu klik: “Zabaldu menua”, “Alea”, “Bigarren izenburua desazoziatu”.



*Monografia baten adibidea*:

Fikziozko liburukien kasuan erabiliko da. Lan ezberdinak batera azaleztatu nahi ditugunean, liburuki horri alearen zenbakia emango diogu soilik.

Monografia katalogatuko da eta alea emango zaio. Ez ahaztu barra-kodea idaztea.




Erregistroan egonik, “Zabaldu menua” aukeran klik egiten dugu, “Dokumentua” aukeratu, eta horren barruan “Alea esleitu (bigarren izenburua)”.




Barra-kodea sartuko dugu.




Bigarren lanean alearen lerro berri bat geratuko da lehen monografiaren datu berberekin, eta lerro hori gorri-laranja kolorekoa izango da.




Asoziazioa ezabatzeko desazoziatu nahi den erregistroa bilatu beharko da. Barra-kodea hautatzen dugu eta ondorengo aukeretan klik egiten dugu: “Zabaldu menua”, “Alea”, “Bigarren izenburua desazoziatu”.



# ALEEN INPRIMAKIAK

## Etiketak ateratzea

EIPS-eko liburutegiek, barra-kodeak eta txaplatak eskatzeko, nor bere lurraldeko ordezkaritzara deitu beharko dute:

**ARABA**
k/ Donostia-San Sebastián, z/g
01010 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 019 524
Fax: 945 019 534

**BIZKAIA**
k/ Gran Vía 85
48011 Bilbao
Tel.: 94 4031650
Fax: 94 4031651

**GIPUZKOA**
k/ Andia 13
20008 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 022 964
Fax: 943 022 965

Inprimakien kodeak hauexek dira:

***L-24* -** Inprimagailurako etiketak (barra-kodeak)
***L-25*** - Inprimagailurako etiketak (txaplatak)
***L-27* -** Inprimagailurako etiketak (txaplatak fonoteketarako)

## Inprimatzeari buruzko xehetasunak

botoian klikatzerakoan irekitzen den leihoan Liburutegi Zerbitzuak parametrizatutako txaplata eta barra-kodeen eredu guztiak azaltzen dira. Hainbat eredu agertzen dira sarean inprimagailu desberdin ugari daudelako, eta horrek berekin inprimatzerakoan aldeak ditu. Liburutegi bakoitzak eredu guztiak probatu beharko ditu, bere inprimagailuari[3] hobekien atxikitzen zaiona aurkitu arte.

Txaplata eta barra-kodeen tipografiak hauexek dira:

| EREDUA | TIPOGRAFIA |
|---|---|
| **01** Aleen barra-kodeak (etiketa barik) | Courier New 8 lodia |
| **02** Aleen barra-kodeak (etiketa barik) 2. eredua | Courier New 8 lodia |
| **03** Aleen barra-kodeak (etiketa barik) 3. eredua | Courier New 8 lodia |
| **04** Aleen barra-kodeak (etiketa barik) 4. eredua | Courier New 8 lodia |
| **05** Aleen barra-kodeak (etiketa barik) 5. eredua | Courier New 8 lodia |
| **06** Aleen barra-kodeak (etiketa barik) 6. eredua | Courier New 8 lodia |
| **07** Aleen barra-kodeak (etiketa barik) 7. eredua | Courier New 8 lodia |

| | |
|---|---|
| **08** Barra-kodeak (4x10) | Courier New 8 lodia |
| **09** Aleen barra-kodeak HP 3650 | Courier New 8 lodia |
| **10** Aleen barra-kodeak 6. eredua (berezia) | |
| **11** Aleen barra-kodeak (HP-berezia) | |
| **12** Barra-kodeak FONOTEKAK | |
| **13** Aleen barra-kodeak 13. eredua | |
| **14** Aleen barra-kodeak (kata. berezia) | |
| **19** Aleen barra-kodeak (etiketa barik) 19. eredua | Courier New 8 lodia |
| **30** Txaplatak (4x10) (4 lerro) | Arial 14 |
| **31** Txaplatak – fonotekak | Arial 20 |
| **32** Txaplatak (4x10) 2. eredua | Arial 14 |
| **33** Txaplatak (4x10) – signatura osagarriarekin | Arial 14 |
| **34** Txaplatak (4x10) – HP 6P, 5P, 1300 | Arial 14 |
| **35** Txaplatak – fonotekak – 2. eredua | Arial 20 |
| **36** Txaplatak (4x19) - TNR eredua | Times New Roman 18 lodia |
| **37** Txaplatak (4x10) (4 lerro) signatura bidez ordenatua | Arial 14 |
| **38** Txaplatak (4x10)- TNR B eredua | Times New Roman 18 lodia |
| **39** Txaplatak (4x10)– tarterik gabe | Arial 14 Negrita |
| **40** Txaplatak (4x10)- TNR C eredua | Arial 14 |
| **41** Txaplatak (4x10) (signatura marrakin) | Times New Roman 18 lodia |
| **42** Txaplatak euskarri guztiak (13x5) | Courier New 6 lodia |
| **43** Txaplatak DVD (13x5) | Courier New 6 lodia |
| **44** Txaplatak (4x10)- HP 3650 | Arial 14 |
| **47** Txaplatak (4x10) (47 Eredua) | |
| **50** Txaplatak (kata. berezia) | |
| **54** Txaplatak (4x10)- signatura osagarriarekin (O1000) | |
| **60** Txaplatak –fonotekak (Errenteria) | |

# Txaplatak inprimatzea

Txaplatak inprimatzeko AbsysNeten parametrizatutako inprimatze-ereduak Liburutegi Zerbitzuak, **L-25 kodearekin** banatzen dituen etiketa-formatuen neurrikoak dira, eta ondoko ezaugarriak dituzte:

Orriak DIN-A4 motakoak dira (210 x 297 mm)

Orri bakoitzak 40 pegatina ditu (4 zutabe x 10 lerro)

Pegatina bakoitzaren neurria da 52,5 x 29,7 mm




Txaplatak inprimatu aurretik garrantzitsua da inprimatzeke txaplatarik ba ote dagoen ziurtatzea. Horretarako ondoko urratsak emango dira:

1. Menu nagusiko (ezkerrean) 

aukera hautatu eta ondoren *sistemaren egoeran* klikatu.
2. Liburutegi edota sukurtsal jakin bateko inprimatzeke dauden txaplatei buruzko informazioa eskuratzeko  botoian klikatu eta ondoren  botoian.
3. *Egin gabeko lanak* fitxan klikatu eta *egin gabeko txaplatak* eremuko informazioa kontsultatu.



Txaplatak inprimatzeko, *Katalogora* joan eta *aleen* atalean bilatu:

1. Bilatu nahi diren eremuak hautatuko dira (erregistro-eguna, erregistro-zenbakia eta abar).

*(Esaterako, ekainaren 1 eta 22 artean erregistratutako txaplatak inprimatu nahi badira, erregistro-egunaren*  *botoian klikatu eta data idatzi hurrenkera honetan: ee/hh/uuuu).*




2.  botoian klikatu.

3. Bilaketan aurkitutako erregistroak pantailan daudenean,  botoian klikatu eta eta ondoko lehioa agertuko da:




4. Soilik inprimatzeke dauden txaplatak inprimatu nahi badira, ☐ Egin gabeko etiketak aukera hautatu.

5. *Posizio libre* eremua automatikoki 1 zenbakiarekin betetzen da. Etiketa beste posizio batean inprimatzea nahi izanez gero, eremu honetan adierazi beharko da inprimatu nahi den eredua hautatu eta *onartu* botoian klikatu aurretik.

6. *Bikoiztuak* eremua ere automatikoki 1 zenbakiarekin betetzen da. Txaplata bera baten baino gehiagotan inprimatu nahi izanez gero, eremu honetan adierazi beharko da eredua hautatu eta *onartu* botoian klikatu aurretik.

7. Interesatzen zaigun aukera edota aukerak hautatu ondoren, PDF botoian klikatu emaitza inprimatzeko. PDF fitxategi bat sortuko da, eta hori da inprimagailura bidaliko dena.

Txaplatak inprimatu aurretik, pantailan ikusi nahi izanez gero, Pantaila botoian klikatu. Emaitza hauxe da:




Txaplatak inprimatu ordez, fitxategi batera bidali nahi izanez gero, geroago aldatu ahal izateko, Fitxategia hautatu eta ondorengo pantaila aterako da:




Aplikazioak sortutako fitxategiak wordpad edota word-ekin ireki beharko dira.

# Barra-kodeak inprimatzea

Barra-kodeak inprimatzeko AbsysNeten parametrizatutako inprimatze-ereduak Liburutegi Zerbitzuak L-24 kodearekin ematen dituen etiketa-formatuen neurrikoak dira, eta ondoko ezaugarriak dituzte:

Orriak DIN-A4 dira (210 x 297 mm.)

Orri bakoitzak 24 pegatina ditu (3 zutabe x 8 lerro)

Pegatina bakoitzaren neurria 70 x 37 mm da




Barra-kodeak inprimatu aurretik gomendagarria da inprimatzeke barra-koderik ba ote dagoen ziurtatzea. Hori jakiteko inprimatzeke dauden txaplatekin jarraitutako prozedura segiko da.

Txaplatak inprimatzeko, *Katalogora* joan eta *aleen* ataletik bilaketa bat egin behar da:

1. Bilatu nahi diren eremuak hautatu (erregistro-eguna, erregistro-zenbakia, eta abar)

*(Esaterako, ekainaren 1 eta 22 artean erregistratutako barra-kodeak inprimatu nahi izanez gero, erregistro egunaren botoian* ⬚ *klikatu eta data idatzi hurrenkera honetan: ee/hh/uuuu.)*




2. ✓ botoian klikatu.

3. Bilaketan aurkitutako erregistroak pantailan daudenean, botoian klikatu eta ondoko leihoa agertuko da:




4. Soilik inprimatzeke dauden barra-kodeak inprimatu nahi izanez gero, ☐ Egin gabeko etiketak aukera hautatu.
5. *Posizio libre* eremua automatikoki 1 zenbakiarekin betetzen da. Etiketa beste posizio batean inprimatzea nahi izanez gero, eremu honetan adierazi beharko da inprimatu nahi den eredua hautatu eta *onartu* botoian klikatu aurretik.
6. *Bikoiztuak* eremua ere automatikoki 1 zenbakiarekin betetzen da. Barra-kode bera baten baino gehiagotan inprimatu nahi izanez gero, eremu honetan adierazi beharko da eredua hautatu eta *onartu* botoian klikatu aurretik.
7. Interesatzen zaigun aukera edota aukerak hautatu ondoren, PDF botoian klikatu emaitza inprimatzeko. PDF fitxategi bat sortuko da, eta hori da inprimagailura bidaliko dena.

Barra-kodeak inprimatu aurretik, pantailan ikusi nahi izanez gero, Pantaila botoian klikatu behar da.

Barra-kodeak inprimatu ordez, fitxategi batera bidali nahi izanez gero, geroago aldatu ahal izateko, Fitxategia hautatu. Ondorengo pantaila agertuko da:




Aplikazioak sortutako fitxategiak wordpad edota word-ekin ireki beharko dira.

# Inprimatzeke dauden aleen barra-kodeak eta txaplatak

Katalogoan ale baten edota irakurle berri baten datuak sartzen diren bakoitzean, ***inprimatzeko zain dauden barra-kode eta txaplatak*** zerrendan automatikoki sarrera batzuk sortzen dira; sarrera horiek ez dira tauletatik desagertuko ***egin gabeko etiketak*** aukera markatzen ez bada, eta prozesuak geldotzen dituzten zerrenda oso handiak sortzen ditu; horrez gain inprimatzerakoan arazoak ere sor daitezke.




Txaplatak edota barra-kodeak inprimatzeko, sarritan aleen datuak sartu ziren data erabiltzen da, baina ondoren ez da *egin gabeko etiketak* aukera markatzen eta etiketa horiek nahiz eta inprimatu sisteman egin gabekoak bezala jarraitzen dute, eta aurreko paragrafoan aipaturiko arazoak sortzen dituzte.

Sistema “garbitzeko” eta prozesuak azkartzeko bi aukera proposatzen dira:

1. **Beti *egin gabeko etiketak* aukera erabili.** Horrela alta emandako aleen etiketak soilik inprimatuko dira, eta aurrez inprimatu ez direnak. Sukurtsal batek inprimatzeko duen kode-kopurua kontsultatzeko, menuko ondoko aukera erabil daiteke: **Administrazioa-> Sistemaren egoera.**




Sukurtsal bat hautatuz gero, sukurtsal horren sistemaren egoerari buruzko informazioa emango digu eta ***Egin gabeko lanak*** fitxan interesatzen zaizkigun aukerak daude:

- Irakurleen barra-kodeak
- Inprimatzeke dauden aleen barra-kodeak
- Inprimatzeke dauden txaplatak




Barra-kode, txaplata eta gutunen-kopuruak ez dira desagertzen aipatu inprimakiak inprimatu arte. Horretarako aleen edota irakurleen atalean dagokion bilaketa egin ondoren, *egin gabeko etiketak* laukia markatu behar da.

2. **Taulak aldian-aldian "garbitu".** Etiketak inprimatuko dira bilatzeko beste aukera batzuk erabiliaz (data, erregistro-zenbakia eta abar); baina liburutegiak aldizka (esaterako, astean behin) inprimatzeke dauden etiketak garbitzeko konpromisoa hartuko du.

   Lan hau egiteko ez da beharrezkoa paper eta tinta gehiago gastatzea etiketak berriro inprimatuz, nahikoa da ondoko prozedura betez gero:

   a) Liburutegiko ale GUZTIAK bilatu.

   b) Etiketak botoian klikatu eta ondoko urratsak jarraitu:

      - Egin gabeko etiketak markatu
      - Pantailan ikusi edo irteera-fitxategira bidali

(Ikus "Egin gabeko taulak ezabatu" eskuliburua)

# MODU HORRETAN EGIN GABEKO ETIKETAK EZABATUKO DIRA

## Egin gabeko barra-kodeak inprimatzeko:







## Egin gabeko txaplatak inprimatzeko:




absysNET
http://www.katalogoak.euskadi.net/elsn/html/PopUp.html
Etiketa inprimatuak ezabatu nahi al duzu?
Bai
Ez

# Katalogoak, fitxak eta dokumentuak inprimatzea

Inprimaki -mota hauek inprimatu ahal izateko, lehendabizi bilaketa adituaren bidez inprimatu nahi diren dokumentuak eskuratuko dira. Urrats hori eman ondoren, soilik nahi den inprimaki-mota hautatu beharko da:

## Katalogoak

***Inprimatzeko dokumentuak*** eremuan bilaketan aurkitutako dokumentuak agertuko dira. Dokumentu guztiak ez badira inprimatu nahi, soilik gura direnak inprima daitezkeondoko laukian zenbaki-segida adieraziz:




***Formatoa*** eremuan katalogoaren forma hautatuko da:




- Zutabe bakarreko formatua.
- Bi zutabeko formatua. Katalogoa bi zutabetan aurkezten da letra estututa.
- Formatu laburra.
- Behatokia formatua.

***Gorputza*** eremuan dokumentuek izango duten forma eta eremuak hautatuko dira:




- Gorputz osoa. Dokumentuaren eremu guztiak inprimatzen dira.
- Gorputz hutsa. Soilik katalogoko sarrerak inprimatzen dira, eta ez dokumentuen deskribapenak.

- Gorputz laburra.
- Behatokia gorputz laburra.
- Behatokia gorputza.

***Ordena*** eremuan inprimatu nahi den katalogo-mota hautatuko da:




- *Hiztegia*. Katalogoa ordenatuko da dokumentu bakoitzaren sarrera nagusi eta bigarren sarrera guztiak kontuan izanik; hau da, dokumentuak dituen sarrera adina fitxa agertuko dira.
- *Egileak eta obra anonimoak.* Katalogoa soilik ordenatuko da sarrera nagusiak kontuan izanik, hots, dokumentu bakoitzeko erregistro bakarra agertuko da.
- *Gaiak*. Katalogoa dokumentuen gaien arabera ordenatuko da.
- *Izenburuak*. Katalogoa ordenatuko da dokumentuen izenburua soilik kontuan izanik.
- *Sistematikoa*. Katalogoa dokumentu bakoitzaren SHUaren arabera ordenatuko da.
- *Sarrerak*. Katalogo hau hiztegiaren berdina da, baina dokumentuen gaiak ez ditu kontuan hartzen.
- *Serieak*. Katalogoa dokumentuen serieen arabera ordenatuko da.
- *Katalogo topografikoa*. Katalogoa signatura topografikoaren arabera ordenatuko da.
- *Sistematikoa (multzoak).* Sailkapen-zenbakien talde jakin batzuk kontuan izanik ordenatuta agertuko da katalogoa.
- *Sistematikoa (Behatokia).*

***Tracing*** eremua markatuz gero, bigarren sarreren erreferentziak agertuko dira.




***Aleak dituztenak*** aukera markatuko da aleak esleituta dituzten dokumentuak soilik inprimatu nahi badira. Aukera hau markatzen ez bada, guztiak inprimatuko dira, aleak dituztenak eta ez dituztenak.

***Aleei buruzko informazioa*** aukera markatuz gero, aleari buruzko datuak inprimatuko dira.

***Lehenengo zk.*** eremuan bi aukera daude:

1. 0 zenbakia idaztea, dokumentuak zenbakitu barik azaltzea nahi bada.
2. Nahi dugun zenbakia idatzi eta hortik aurrera katalogoa zenbakituko da.

Beharrezkoa izanez gero, ***Liburutegia, Sukurtsala, Ale-mota, Kokagunea, Egoera*** *eta* ***Jatorria*** eremuak gainerako moduluak bezala beteko dira; betetzea ez baita nahitaezkoa.

***Erregistro-eguna*** eremuaren bidez, alearen datuak sartu ziren egunaren arabera inprima daitezke. Eremu hau soilik aktibatzen da *Aleak dituztenak* edo *Aleei buruzko informazioa* laukiak hautatu badira.




***Signatura*** eremuaren bidez, dokumentuen signaturen arabera inprima daiteke. Aurreko eremuan bezala **Eremu hau soilik aktibatzen da** *Aleak dituztenak* edo *Aleei buruzko informazioa* laukiak aukeratu badira.

Beharrezko eremuak bete eta gero, [Onartu] botoian klikatu katalogoa inprimatzeko.

Inprimatzeaz gain, beste bi aukera ere badaude:

- Pantailan ikusi [Pantaila]. Aukera ona da inprimatu beharreko dokumentua aurrez ikusteko eta hautatutako katalogoa interesatzen zaiguna dela ziurtatzeko.
- Fitxategian inprimatu [Fitxategia]. Aukera hau hautatuz geroz, katalogoaren datuak testu fitxategi batera (.txt) bidal daitezke. Aukera hau interesgarria da katalogoa maketatu nahi denean inprimaki zainduagoak sortzeko, tipografia bereziarekin eta abarrekin. Beharrezkoa da Fitxategia eremua betetzea, informazioa bidaltzea nahi den fitxategiaren izenarekin.



## Fitxak

Aukera honen bidez, dokumentuen ISBD bibliografia fitxa estandarrak (12’5 x 7’5 cm) inprima daitezke. Erabilera katalogoak inprimatzeko antzekoa da.

***“Inprimatzeko dokumentuak eremuan”*** bilaketan aurkitutako dokumentuak agertuko dira. Guztiak ez baditugu inprimatu nahi, segida muga daiteke.

Bilaketa muga daiteke, horretarako “***barra-kodeak”*** eremua erabilita.




Beharrezkoa izanez gero, “***Liburutegia”,” Sukurtsala”***, “***Ale-mota”***, “***Kokagunea”***, “***Egoera”*** *eta* ***“Jatorria”*** eremuak gainerako moduluak bezala beteko dira; betetzea ez baita nahitaezkoa.

***“Erregistro- eguna”*** eremuan alearen datuak sartu ziren egunetik inprima daiteke. **Eremu hau soilik aktibatzen da “*Aleak dituztenak”* edo “*Aleei buruzko informazioa”* laukiak aukeratu badira**.

***“Signatura”*** eremuaren bidez, dokumentuen signaturen arabera inprima daiteke. Aurreko eremuan bezala **Eremu hau soilik aktibatzen da “*Aleak dituztenak”* edo “*Aleei buruzko informazioa”* laukiak aukeratu badira.**

***“ISBD”*** eremuak inprimatu nahi diren bigarren sarrerak hautatzea ahalbidetzen du:

> 1 ISBD fitxak. Aukera hau automatikoki agertzen da; eta hautatuz gero, fitxa joko osoa lortuko da: sarrera nagusiak + bigarren sarrerak.

